



DERIOKO UDALAK

Derioko Udabatzak Osoak, 2019ko irailaren 24an bilduta, hitzez hitz onartu egin zuen, Eusko Jaurlaritzak egindako Adierazpena, larrialdi klimatikoari buruz:

EUSKO JAURLARITZAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA LARRIALDI KLIMATIKOARI BURUZ

Euskadi erkidego aitzindaria da garapen jasangarriaren aldeko konpromisoan, ingurumenarekiko errespetuan eta klimaren aldaketaren aurkako estrategian. Erakunde publikoek bultzatutako ekimenek euskal gizartearen babes izan dute beti, euskal gizarteak kontzientzia eta konpromisoa erakutsi baitu helburu global honekin.

Klima aldaketari buruz adostasuna badenez nazioartean -krisialdiak eta hondamendiak eragin bailitzake aldaketa horrek planetako hainbat lekutan-, iruditzen zaigu gure arreta guztia eskatzen duen erronka zail eta premiazkonetako bat dela egoera hori. Karbonoan ekonomia neutrorantz doa euskal gizartea eta bere egin du baduela erantzukizuna klima aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko politikak abiaraztean konpromiso sakon eta zorrotz batekin.

2002-2020 Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia eta bost urtetik behin onartutako esparru programek zehaztu dute euskal politika gai honetan. Gure ingurumen politika guztiz datar bat 2030 Agendarekin, Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin eta Europar Batasunaren estrategiarekin.

Eusko Jaurlaritzak 2015ean onartu zuen "Kiima 2050" Euskadiren klima aldakari buruzko estrategia, baita 2030 Estrategia Energetikoa ere 2016ko uztailan, eta bere egin zuen partekatutako erantzukizunaren printzipioa, printzipio horrek gidatzen ditueta isurketen murrizketei eta trantsizio energetikoari buruzko nazioarteko politikak.

El Pleno del Ayuntamiento de Derio, reunido el día 24 de septiembre de 2019, aprobó en sus propios términos la Declaración formulada por Gobierno Vasco sobre emergencia climática:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE GOBIERNO VASCO DE EMERGENCIA CLIMÁTICA

Euskadi es una Comunidad pionera en el compromiso con el desarrollo sostenible, el respeto al medio ambiente y la estrategia de lucha contra el cambio climático. Las iniciativas impulsadas desde las instituciones públicas han encontrado siempre el respaldo y apoyo de una sociedad vasca concienciada y comprometida con este objetivo de carácter global.

Existiendo un consenso internacional sobre el cambio climático, que nos podría llevar a situaciones de crisis y catástrofes en diferentes puntos del planeta, entendemos que tal situación es uno de los retos más urgente y complejo al que tenemos que prestar toda nuestra atención. La sociedad vasca avanza hacia una economía neutra en carbono y ha asumido su cuota de responsabilidad en la puesta en marcha de políticas de mitigación y adaptación al cambio climático con un compromiso profundo y exigente.

La Estrategia Ambiental Vasca de Desarrollo Sostenible 2002-2020 y los Programas Marco aprobados cada cinco años han enmarcado la orientación de la política vasca en esta materia. Nuestra política ambiental se encuentra estrechamente alineada con la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible de Naciones Unidas y con la Estrategia de la Unión Europea.

El Gobierno Vasco aprobó el año 2015 la Estrategia de cambio climático de Euskadi, "Klima 2050", así como la Estrategia Energética 2030 en julio de 2016, asumiendo el principio de responsabilidad compartida que rige las políticas internacionales de reducción de emisiones y sobre la transición energética.



DEGIKO UDALA

Klima aldaketaren kontrako borroka mundu osoko erronka bat da, guztioi eragiten diguna, batez ere, herritarrengandik hurbilen gauden eta herritarren eskakizun eta beharrak ondoen ezagutzen ditugun erakundeoi. Horregatik, nazioarteko erakundeek azpimarratu dute "Eskualdeen Konpromisoa" funtsezkoa dela klimaren krisialdiari ekiteko. Mende honetan zehar Euskadik ekintzen bitartez erakutsi du konpromiso hori.

Badakigu lehen ekintza-lerroa garela klima aldaketaren aurkako borrokan eta ingurumenaren babesean gure planetan. "Think global, Act local" premisatik abiatuta, konpromisoa hartu dugu tokiko konponbideak eta erantzunak bilatzeko lehen tasun global honi irtenbideak emate aldera. Garrantzi praktikoa izan du Udalsarea 2030 ekimena abiarazteak, ekimen horren bitartez txertatu baitira helburu klimatiko horiek hainbat euskal udaletan.

Sarean lan egiteko filosofia horri erantzunez, Euskadik era aktiboan hartzen du parte "The Climate Group" delakoan, klima-aldaketaren aurkako estatu, komunitate eta eskualdeen aliantzan, hain zuzen. Aliantza horretako kideok 320 milioi pertsona baino gehiago ordezkatzeko ditugu, mundu osoko biztanleen %12 baino gehiago, ha in zuzen.

Aliantza horren ko-presidente gisa, Lehendakariaren ordezkariak New Yorkeko mundu mailako goi bileran hartu zuen parte 2014ko irailean eta bere egin zuen "2050. urterako berotegi efektuko gasen isurketa %80 murrizteko konpromiso kolektiboa".

2015eko abenduan Eusko Jaurlaritzak Pariseko COP 21 goi-bileran hartu zuen parte "The Climate Group" nazioarteko aliantza ordezkatzuz, eta 2016ko maiatzean klima aldaketari buruzko Hitzarmen globalari atxikitzea izenpetu zuen Lehendakariak. Hitzarmen horretan ezarritakoaren arabera, ingurumen politika arduratsua egin behar da, mundu osoko tenperatura igoerari industrializazio aurreko mailekiko 2°C-ko igoeratik behera eusteko.

La lucha contra el cambio climático es un desafío mundial que nos incumbe a todas y todos, especialmente a las entidades más cercanas y que conocemos mejor las demandas y necesidades de la ciudadanía. En este sentido, los organismos internacionales han subrayado que el "Compromiso de las Regiones" es fundamental para abordar la crisis climática. A lo largo de este siglo, Euskadi ha venido demostrando este compromiso con hechos.

Somos conscientes de constituir la primera línea de acción en la lucha contra el cambio climático y la preservación del medio ambiente en nuestro Planeta. Desde la premisa "Think global, Act local" nos hemos comprometido en la búsqueda de soluciones y respuestas locales para dar solución a esta prioridad global. Una iniciativa de gran relevancia práctica ha sido la puesta en marcha de la Red Udalsarea 2030 que ha permitido incorporar a estos objetivos climáticos a numerosos municipios vascos.

Atendiendo a esta filosofía de trabajo en red, Euskadi forma parte activa de la Alianza de Estados, Comunidades y Regiones contra el cambio climático "The Climate Group." Esta Alianza está conformada por Gobiernos que representamos a 325 millones de personas, esto es, más del 12% de la población mundial.

En calidad de co-presidente de esta Alianza, la representación del Lehendakari participó en la Cumbre mundial de Nueva York en septiembre de 2014 y asumió el "compromiso colectivo de alcanzar una reducción del 80% de la emisión de gases de efecto invernadero para el año 2050".

En diciembre de 2015, el Gobierno Vasco, tomó parte en la COP 21 de París en representación de la alianza internacional "The Climate Group", y en mayo de 2016 el Lehendakari firmó la adhesión al Acuerdo global sobre el cambio climático. Este Acuerdo establece la necesidad de realizar una política ambiental responsable para mantener la temperatura media mundial muy por debajo de los dos grados respecto a los niveles preindustriales.



DEBIAKO UDALA

New York-eko eta Pariseko goi-bileren ondotik, Euskadi nazioarteko erreferentzia eredu izan da konpromiso horretan. Europar Batasunak onartzen du eskualde aitzindarietako bat garela ekintza klimatikoan eta hazkunde ekonomiko jasangarrirako eredu bat dugula ingurumenarekiko errespetuarekin bat datorrena. Horrela, 1995etik hona %65 hazi da barne produktu gordina Euskadin; berotegi efektuko gasen isurketa, ordea, %20 jaitsi da aldi berean. Benetan, aurrera egin behar dugu berotegi efektuko gasen isurketa murrizten, baina aitortu beharra daga garapen jasangarriagorako eredu bat garatzen egindako ahalegina.

Gaur Euskadi Europako lehenengo bost herrialdeen artean daga eraginkortasun energetikoaren alorrean. Tradizio industrialeko herrialde bat gara, lortzen ari dena ekoizpen ekonomikoa eta berotegi efektuko gasen isurketa eraginkortasunez bereiztea. Jasangarritasun Energetikoari buruzko 4/2019 Legea onartu dugu Eusko Legebiltzarrean eta Jaurlaritzaren Kontseiluak ere Mugikortasun Elektrikoaren Plan Integrala onartu du 2018an.

Eredugarria izan da ibilitako bidea eta bide horrek beti izan du erakunde publiko guztien konpromisoa eta euskal gizarte osoaren atxikimendua.

Konpromiso kolektibo horrek beste urrats bat egin du, Eusko Jaurlaritzak erabaki baitu mundu guztiko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin bat egitea eta klimaren eta ingurumenaren larrialdi egoera adieraztea, Gobernuak burututako politiketan premiazko ekintza handinahiak onartzeko konpromisoa iragartzeko.

Eusko Jaurlaritzak bat egin nahi izan du munduko erakunde politiko, sozial eta akademikoekin klimaren eta ingurumenaren gaineko larrialdi egoerako adierazpen formalean, karbonoan lurralde neutro bat lortzeko -trantsizio justu batek hori egiteko aukera ematen duen bezain pronto, eta edozelan ere, inoiz ez 2050 baino beranduago-, baita larrialdi klimatikoaren aurrean lurralde eta gizarte erresilienteago bat lortzeko ere.

A partir de las Cumbres de Nueva York y París, Euskadi ha sido ejemplo internacional de referencia en este compromiso. La Unión Europea nos reconoce como una de las Regiones líderes en la acción climática, con un modelo de crecimiento económico sostenible y acompasado con el respeto medioambiental. Así, desde 1995 el crecimiento del producto interior bruto en Euskadi ha sido del 65%, mientras que en el mismo período las emisiones de gases de efecto invernadero se han reducido un 20%. Ciertamente, tenemos que seguir avanzando en este proceso de reducción de emisiones pero es preciso reconocer el esfuerzo realizado para desarrollar un modelo de crecimiento más sostenible.

Hoy Euskadi se sitúa entre los cinco primeros países de Europa en eficiencia energética. Somos un País de tradición industrial que está logrando desacoplar de forma eficiente la producción económica y la emisión de gases de efecto invernadero. En el Parlamento Vasco hemos aprobado la nueva Ley de Sostenibilidad Energética 4/2019 y por el Consejo de Gobierno también el Plan Integral de Movilidad eléctrica en el año 2018.

El camino recorrido ha sido ejemplar y ha contado siempre con el compromiso de todas las instituciones públicas y la adhesión del conjunto de la sociedad vasca.

Este compromiso colectivo se materializa en un nuevo paso porque el Gobierno Vasco ha decidido unirse a las instituciones políticas, sociales y académicas de todo el mundo y declarar la situación de Emergencia Climática y ambiental como expresión del compromiso de adoptar acciones urgentes y ambiciosas en el conjunto de las políticas desarrolladas por el Gobierno.

El Gobierno Vasco ha querido unirse a las instituciones políticas, sociales y académicas de todo el mundo con la declaración formal de emergencia climática y ambiental con el objetivo de lograr un territorio neutro en carbono, tan pronto como una transición justa lo permita y, en cualquier caso, no más tarde del año 2050, así como de lograr un territorio y una sociedad más resiliente ante la emergencia climática.



DEIOLKO UDALA

Adierazpen honekin, Eusko Jaurlaritzaren asmoa da gai hau gure herriaren helburu nagusi gisa kokatzea. Asmoa ez da inolako alarmismo inkontzienterik anplifikatzea, baizik eta erronka honi behar duen dimentsioa eta arreta ematea. Berotze globala errealitate ukaezina da eta frogatuta daga hori arduraz kudeatzeak onurak ekarriko dituela ingurumenarentzat eta pertsonen osasunarentzat. Ekarriko ditu, baita ere, aukerak hazkunde ekonomiko jasangarriagoa lortzeko, jarduera-sektore berriak garatzeko eta kalitate handiagoko enplegu-aukerak sortzeko.

Euskadi prest daga aukera gisa egiteko aurrealdaketa ekologikoaren eta energetikoaren erronkari. Gu murgilduta gauden trantsizio global horrekin batera, politika industrial, fiskala, energetikoa, ikerketakoa eta berrikuntzakoa erabili behar dira aldi berean, politika hori laguntza eta pizgarri izan dadin. Jakitun gara beharrezkoa dela osorik egokitzea garraioen sistemak, herri eta lurraldeak konfiguratzeko dinamika, baliabideen kudeaketa, industria edo nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-ereduak; edo apustu egin behar dela ekonomia zirkularraren alde. Jakitun gara, baita ere, aldatu egin behar direla baliabide naturalen kontsumo ohituretan familien eta norbanakoen eguneroko erabakiak.

Gure gain hartzen dugu erronka hori, garapen iraunkorraren aldeko Herri apustu globalaren esanahi sakonenean, eta geure egiten dugu egungo gure belaunaldiaren konpromisoa etorriko diren belaunaldiekiko. Konpromiso honek berekin Dakar erabakiak hartzea eta berariazko baliabideak abian jartzea, Larrialdi Klimatikoari buruzko Adierazpenari erantzun eraginkorra emateko. Aldaketa klimatikoaren legearen aurreproiektuko 1 go artikuluan jasotakoaren arabera, helburua da "2050 urterako, ekonomia erresilientean eta karbonoan neutroa den ekonomian aurrera egitea." Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartutako Euskadiko ingurumena administratzeko lege proiektu berrian ere horrela jaso da eta hainbat gairen artean ezarri da obra publikoetan erabil behar den materialaren %40a birziklatuazitea ekonomia zirkularraren alde apustu egiteko.

Con esta Declaración, el Gobierno Vasco plantea situar esta cuestión como un objetivo central de nuestro País. No se trata de amplificar ningún tipo de alarmismo inconsciente sino de otorgar a este reto la verdadera dimensión y atención que merece. El calentamiento global es una realidad incuestionable y está demostrado que su correcta gestión responsable conlleva ca-beneficios para el medio ambiente y la salud de las personas. También oportunidades para un crecimiento económico más sostenible, el desarrollo de nuevos sectores de actividad y la generación de oportunidades de empleo de mayor calidad.

Euskadi está preparada para afrontar el reto de la transformación ecológica y energética como una oportunidad. Esta transición global en la que estamos inmersos demanda en paralelo una política industrial, fiscal, energética, de investigación e innovación que sirva de acompañamiento y revulsivo. Somos conscientes de la necesidad de adaptación integral de los sistemas de transporte, las dinámicas de configuración urbana y territorial, la gestión de los recursos, los modelos de producción industrial o agropecuario o la necesaria apuesta por la economía circular. Somos también conscientes de la necesidad de transformar las decisiones diarias de las familias y de cada persona en sus hábitos de consumo de los recursos naturales.

Asumimos este reto en su más profunda significación de apuesta global de País por el desarrollo sostenible y adquirimos el compromiso de nuestra generación actual con las generaciones venideras. Este compromiso comporta la adopción de decisiones y la puesta en marcha de instrumentos específicos que permitan dar respuesta efectiva a la Declaración de Emergencia Climática. Así se recoge en el Anteproyecto de ley de cambio climático que, de conformidad con su artículo 1, tiene como objetivo "avanzar en una economía resiliente y neutra en carbono para el año 2050." También se contempla en el nuevo Proyecto de ley de administración ambiental de Euskadi aprobado por el Consejo de Gobierno y que, entre otras cuestiones, plantea la utilización de un 40% de materiales reciclados en las obras públicas como una apuesta por la economía



DERIOKO UDALAK

Bi arau horiek, zalantzarik gabe, funtsezko zeregina beteko dute aldaketa klimatikoaren munduko arazoa gainditzeko Euskadik egingo duen ekarpenean.

Ekimen horiek jarraipena izango dute eta Eusko Jaurlaritzak bere konpromiso irmoa adierazten du kontuan izan dadin aldaketa klimatikoaren eraginaren perspektiba, politika publikoak diseinatzerakoan eta aplikatzerakoan. Horrela, emisioak murrizteko eta egokitzeko beharrezkoak diren neurriak bultzatuko dira, Larrialdi Klimatikoari buruzko Adierazpen hau betetzeko.

Era berean, ezinbestekoa izango da tresna eta baliabide ekonomikoak edukitzea, larrialdi klimatikoari aurre egiteko politikak garatzeko. Horretarako, Euskadiko Administrazio Nagusiak eta horri lotutako erakundeek urteko aurrekontuaren zati bat erabiliko dute aldaketa klimatikoan eragina izango duten jarduerak garatzeko, bai aldaketa hori arintzeko bai aldaketa horri egokitzeko; eta EA Eren aurrekontu orokorrek ekonomia- eta aurrekontu-arloko informazioa jasoko dute, ekintzen, neurrien, zerbitzuen eta programen arabera jarraitzeko informazio horri. Aldi berean, beharrezkoak diren akordio eta hitzarmenak sustatuko dituzte, autonomia ekonomikofinantzariora errespetatuz, Euskadiren herri eta lurralde erakundeetan ekintza klimatikoa bultzatzera bideratutako programak eta ekintza zehatzak kofinantzatu ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak bat egiten du Adierazpen honekin, eta berretsi egiten du, era berean, "Kiima 2050" klima aldaketaren estrategiarekiko eta 2030 estrategia energetikoarekiko konpromisoa; eta, aldi berean, adierazi nahi dugu uste osoa dugula Euskadi erronka horren aitzindari izan daitekeela eta erronka hori eraldaketa palanka bihur dezakeela ekonomia lehiakorragoa eta klimatikoki neutroagoa erdiesteko.

Derion, 2019ko irailaren 24an

circular. No cabe duda de que estas dos normas van a tener un papel fundamental en la contribución de Euskadi a superar el problema mundial del cambio climático.

Estas iniciativas van a tener su continuidad y el Gobierno Vasco expresa su firme compromiso para que, en el diseño y aplicación de todas las políticas públicas, sea tenida en cuenta la perspectiva del impacto del cambio climático. De esta forma, se impulsarán las medidas de reducción de emisiones y de adaptación que resulten necesarias con el objetivo de cumplir con esta Declaración de Emergencia Climática.

Asimismo, se precisará disponer los medios y recursos económicos para desarrollar las políticas necesarias ante la emergencia climática. A tal fin, la Administración General de Euskadi y sus entidades vinculadas destinarán parte de su presupuesto anual a actuaciones con impacto en el cambio climático, tanto para la mitigación como para la adaptación, y los Presupuestos Generales de la C. A. Euskadi recogerán información económico-presupuestaria susceptible de seguimiento por acciones, medidas, servicios, programas económicos. Del mismo modo, promoverán los acuerdos y convenios necesarios para que, con respeto a su autonomía económico-financiera, puedan cofinanciarse programas y acciones concretas destinadas a impulsar la acción climática en las Instituciones Territoriales y Locales de Euskadi.

El Gobierno Vasco suscribe esta Declaración reafirmando asimismo el compromiso con la Estrategia de cambio climático Klima 2050 y la Estrategia Energética 2030, al tiempo que manifestamos la plena convicción de que Euskadi puede liderar este desafío y convertirlo en una palanca de transformación hacia una economía más competitiva y climáticamente neutra.

En Derio, a 24 de septiembre de 2019